

Nork eska dezake?

Hernanin erroldatuta dagoen edonork.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Ikastaro arruntak edo autoikaskuntzakoak

- Langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasuna duten pertsoneri matrikularen %90.
- Gainerakoei: matrikularen %70.

Dirulaguntza bi epetan ordainduko zaie ikasleei. Erdia urtarrila-otsailean, eta beste erdia ikasturtea amaitutakoan.

Aurkeztu beharreko agiriak

- Ikastaroan matrikulatu eta ondorengo 15 egunen barruan [eskaera-orria](#) behar bezala beteta.
- Ordainagiriaren fotokopia
- NAren fotokopia.
- Ikastaroa amaituta, Euskaltegiaren agiria asistentzia eta egindako ebaluazioekin.
- Langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasuna duten pertsona izanez gero, egiaztatuko duen agiria.

Nola eskatzen da?

- 🖐️ **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan).
 - Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00** (urte osoan zehar)
 - Astearte eta ostegunetan: **08:00 - 18:30** (irailtik ekainera)
 - Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**
- 📞 **Telefonoz:** Ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337029** telefonora deituz.
- 💻 **On-line:** [Zerbitzu telematikoak](#)[Zerbitzu telematikoak](#) erabiliz ere erregistratu daiteke idatzi bat eta horri atxikitako agiriak.

Oharrak

- Ikasturteko gehienez jaso daitekeen diru kopurua: 500 €.